

EPE 2016 informazioa

2016ko EPE deialdia argitaratu da.
Hemen laburpena eta kontutan izan beharreko oinarrizko elementuak

Deialdi osoa irakurtzeko egin [klik hemen](#)

PLAZA KOPURUA ETA ESPEZILITATEAK

A) librea B) ezinduei erreserbatutakoa (%7) D) goragoko talde bateko kidegoetara sartzekoa (%50)

ESPEZIALITATEAK	2. HE			GUZTIRA
	A	B	D	
Latina	6	1	7	14
Musika	5	1	7	13
Gaztelera eta Literatura	32	5	37	74
Geografia eta Historia	23	4	27	54
Matematikak	24	4	29	57
Fisika eta Kimika	14	2	17	33
Biologia eta Geologia	26	4	31	61
Frantsesa	7	1	8	16
Ingelesa	34	6	40	80
Gorputz Hezkuntza	13	2	14	29
Teknologia	15	3	18	36
Euskera eta Literatura	36	6	42	84
Orientazioa	4	1	4	9
Informatika	6	1	6	13
Ekonomia	2	-	2	4
Guztira	247	41	289	577

Hizkuntza Eskakizuna: Plaza guztiak 2. Hizkuntza Eskakizunekoak (PL 2) izango dira. Hizkuntza Eskakizuna akreditatuta ez duenek euskara ezagutza egiaztatzeko froga egiteko aukera izango dute.

Ezinduei erreserbatutako txandan eskainitako lanpostuak bete gabe geratuz gero, txanda librekoiei gehituko zaizkie, eta hortik beteko dira.

EGUTEGIA

1. **Izen-ematea, tasa ordainketa eta dokumentazio aurkezteko epea:** otsailaren 10etik 29ra, biak barne.

Eskaera orria bete: Hezkuntza Sailaren web orrian: EPE 2016→Sartzeko eta iristeko prozedurak→Parte-hartzeko eskabidea→Onartzeko eskabidea (edo egin [klik hemen](#)).

Dokumentazioa aurkezteko: Aurretiko zita eskatu behar da Hezkuntza Sailaren web orrian: EPE 2016→Sartzeko eta iristeko prozedurak→Parte-hartzeko eskabidea→Aurretiko zita dokumentazioa aurkezteko (edo egin [klik hemen](#)).

2. Ordezkoen zerrendetan zaudetenak zuen IRAKASLE.NET erabiltzailea erabilgarri izango duzue prozesua jarraitzeko. Zerrendetan ez zaudetenoi erabiltzaile bat emango dizue internetez prozesua jarraitzeko.
3. **Programazio Didaktikoa** aurkezteko epea: martxoaren 11tik 23ra.
4. **Oposizio-aldiko frogak.** Ekainetik aurrera. Ebazpen berezia argitaratuko da frogen lekua eta datak zehaztuz.

TASAK

Behin izena emanda, eskaerak aurkezteko epearen barruan izan-gai bakoitzak **22,02€**ko tasa ordaindu beharko du. Era desberdinetan egin daiteke:

- Jarraian aipatzen diren bankuetako edozein sukurtsaletan **zuzenean ordaintzea**, erakunde laguntzailearentzako frogagiria aurkeztuz: Euskadiko Kutxa, Kutxabank (BBK-Bilbao Bizkaia Kutxa, Vital Kutxa eta Gipuzkoa Donostia Kutxa), BBVA, Santander, Sabadell-Guipuzcoano, Bankia, La Caixa edo Bankoa. Inprimakiek barren kodea dutenez, kutxazain automatikoaren bidez egin daiteke ordainketa, irakurketa optikoarekin edo datuak eskuz antzemanaz.
- **ON-LINE ordaintzea:** banku elektronikoaren sistemaren bitartez, sistemak berak erakusten dituen jarraibideen arabera, betiere interesduna modalitate horretako bezero baldin bada adierazitako banku-erakundeetatik edozeinetan. Ordainketa-mota horren bitartez, ez da alferreko joan-etorririk egin behar eta ez da ilaran itxaron behar. Gainera, eguneko 24 orduetan erabil daiteke.

MEREZIMENDUAK

Deialdiak zein merezimendu kontutan hartzen diren azaltzen du I ERANSKINEAN. Ikus bertan administrazioak ofizioz zer puntuatzen duen eta zuek zer sartu behar duzuen. Non aurkeztu:

1. Eusko Jaurlaritzaren “Zuenean” bulegoetan:
 - - Araba: Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan. San Prudentzio, 18-behea – Gasteiz.
 - - Bizkaia: Zuzenean, Gran Vía, 85 – Bilbo
 - - Gipuzkoa: Zuzenean, Andia, 13 – Donostia
2. Eusko Jaurlaritzarekin dagokion hitzarmena izenpetu duten toki-administrazioen erregistroetan.
3. Posta bulegoan. Nola egin behar den jakiteko galdetu sindikatuan edo posta bulegoan bertan.

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA-UNITATE DIDAKTIKOA

Programazio didaktikoak gutxienez 9 Unitate Didaktiko izan beharko ditu, Hezkuntza Orientazioaren espezialitatearen kasuan, 15 plan espezifiko gutxienez. DIN-A4 formatuko 50 orrialde eduki beharko ditu gehienez, arial 12an, alde bakarretik eta espazio bikoitzarekin. Eranskinik ez. Portada eta indizea ez dira 50 orrialde horietan kontatuko.

- Unitate Didaktikoen defentsarako, hautagai bakoitzak bere programazioan landutako unitate didaktiko baten garapena izan daiteke edo nahi izanez gero, espezialidadearen temario ofizialetik ateratakoa (Temario ofizialetik edo programazioko unitate didaktikoetatik hiru aterako dituzte eta hautagaiak bat aukeratuko du)
- Programazio didaktikoak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Internetaren helbidean entregatu beharko dira: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net> («EPE 2016. Bigarren hezkuntza») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz).
- Programazio didaktikoa entregatu ondoren, ordezkagiria inprimatu beharko du izangaiak, horixe izango baita dokumentua entregatu izana justifikatzeko agiria. Ordezkagiri horretan, izangaiaren NANA eta izangaia identifikatzen duen eskaera-zenbakia agertuko dira, eta dokumentua zein datan eta ordutan entregatu den ere bai.
- Programazio didaktikoen entrega formatu elektroniko hauetako batean egin beharko da:
 - Microsoft Office 2010 edo aurrekoa.
 - Libre Office 4.1 edo aurrekoa.
 - Fitxategiak Portable Document Format-en (PDFn).

CURRICULUMAK

DBH:

- [175/2007 Dekretua](#), urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa (EHAA, 2007-11-13), martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuak (EHAA, 2010-04-20) aldatua.
- [236/2015 Dekretua](#), abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15).
- [1105/2014 Errege Dekretua](#), abenduaren 26koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxillergoko oinarritzko curriculumak sortzekoa (EAO, 2015-01-03).

Oharra: *Deialdian jasotakoaren arabera hautagaiek aukeran LOE edo LOMCE-Heziberriren baitako curriculumak izan ditzakete kontutan programazio didaktikoa egiterako orduan.*

BATXILLERGOA:

- [23/2009 Dekretua](#), otsailaren 3koa. Honen bidez, Batxillergoko curriculumak ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen da (EHAA, 2009-02-27), apirilaren 20ko 122/2010 Dekretuak (EHAA, 2010-05-07) eta urriaren 16ko 429/2013 Dekretuak aldatua.
- [1105/2014 Errege Dekretua](#), abenduaren 26koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxillergoko oinarritzko curriculumak sortzekoa (EAO, 2015-01-03).

LANBIDE HEZIKETA:

- Euskal Autonomia Erkidegorako dagokion curriculumak ezartzen duten dekretuak, EHAAan argitaratuak. Ikus ondorengo lotura: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-lege/eu/contenidos/informacion/lex/eu_2017/fploe.html

FROGA PRAKTIKOA

Hezkuntza Sailak web-orrian argitaratuko ditu espezialitate bakoitzari dagozkion proba praktikoen ezaugarriak. Proba horietako ariketak honako hauek izan daitezke, betiere epaimahaiak proposatuak: gairen bat aztertzea, testuak iruzkintzea, dokumentuak edo errepresentazio artistikoak, itzulgaiak, galderak erantzutea edo problemak edo kasuak ebaztea, gaitasun tekniko edo instrumentalak erakustea eta estrategiak eta proiektuak azaltzea. Edonola ere, izangaiak indarrean dauden espezialitateko gai-zerrendarekin edota curriculumarekin lotuta dauden kontzeptuak jarri beharko ditu praktikan.

Zati hau egiteko hautagaiek gehienez 3 orduko denbora tartea izango dute.

GAI-ZERRENDA EDO TEMARIOAK

Espezialitate bakoitzeko gai-zerrendak ondorengo helbidean aurki ditzakezu: [egin klik hemen](#).

OPOSIZIO ALDIA (serbide irekia eta ezinduentzat)

1go froga	A) zatia: Proba praktikoa* (ariketak) (Gehienez 3 ordu)	Gutxienez % 25 atera beharko da.	0-10 bitarte ebaluatzen da. Zati bakoitzak gutxienez 3 puntu balioko ditu. Gutxienez 5 atera behar da bi zatien artean.
	B) zatia: Gaia (Gehienez 2 ordu) Zozketaz egiten da: - 25 gaitarako 2 gairen artean - 25-50 gai bitarte 3 gairen artean - 51 edo gehiago 4 gairen artean	Gutxienez % 25 atera beharko da.	
2. froga	A) Programazio didaktiko baten aurkezpena	Gutxienez 5 atera beharko da	0-10 bitarte ebaluatzen da
	B) Unitate didaktikoa prestatu eta aurkeztu. (UDaren prestaketa 75', Programazioaren aurkezpena 20', Udaren aurkezpena 45', Galderak 15') Norberak aurkeztutako programazioan edo gaitegian egongo da oinarritua. 3 zozketatzen dira eta bat aukeratzen da		

OPOSIZIO ALDIA 2/3 PONDERATZEN DA

**REAL DECRETO, artículo 21. Parte A: En todas las especialidades, las Administraciones educativa convocantes incluirán una prueba práctica que permita comprobar que los candidatas poseen la formación científica y el dominio de las habilidades técnicas correspondientes a la especialidad a la que se opte.*

LEHIAKETA ALDIA

Lan eskarmetua	- Kidego berean eta publikoan: ikasturte bakoitzeko 1 puntu - Beste kidegoetan eta publikoan: ikasturteko 0,5 puntu - Kidego berean bestelako ikastetxeetan: ikasturteko 0,5 ptu - Beste kidegoetan bestelako ikastetxe: ikasturteko 0,25 ptu	Gehienez 5 puntu
Formakuntza akademikoa	- Norberaren espediente akademikoa: gehienez 1,5 puntu - Ikasketa Aurreratuen Diploma edo masterrak: puntu 1 bakoitzeko - Doktoretzak: puntu 1 - Ez-ohiko saria doktoretzan: 0,5 puntu - Unibertsitateko titulazioak (1. edo 2. ziklokoak): puntu 1 - Musika zein dantzako titulu profesionala: 0,5 puntu - HEOko gaitasun titulua: 0,5-1 puntu - Goi Mailako teknikari titulua: 0,2 puntu	Gehienez 5 puntu
Bestelako merituak	Deialdi bakoitzak zehaztuko du	Gehienez 2 puntu

GEHIENEZ 10 PUNTU LORTU AHALCO DIRA

LEHIAKETA ALDIA 1/3 PONDERATZEN DA

GORAKO TALDE BATEKO KIDEGORA IRISTEA

Prozedura honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko A-2 azpitaldeko irakasle funtzionarioek, deialdian ezarritako betekizuna orokorreaz gainera, honako hauek betetzen badituzte:

- a) Deialdi honen oinarrietan Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartzeko adierazitako tituluetakoren bat edukitzea.
- b) Jatorrizko kidegoan gutxienez sei urtez egon izana karrerako funtzionario gisa.
- c) Iritsi nahi duen lanpostuari esleitutako 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Iristeko prozedura hori aukeratzen dutenek ezin izango dira beste txanda batean lehiatu espezialitate bera lortzeko, ezta ondoren txandaz aldatu ere.

Ikus deialdian talde prozedura honetarako oposizio-aldiaren definizio eta ezaugarriak (7.2 atala) eta merezimenduen baremoa (II. eranskina).